BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4338

EBAZPENA, 2015eko irailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2015eko udan eta 2015-2016 ikasturtean Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte hartzeko onetsiak izan diren ikasketa-elkarteen behin betiko zerrenda jakinarazten duena.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko jarduerez diharduenean, honela dio bere 23. ataleko 4. pasartean: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduak (EHAA, 2015eko uztailaren 2koa) 2015eko udarako eta 2015-2016 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu. Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ondoren zerrendatzen diren ikasketa-elkarteok Irale programaren barruan 2015eko udan eta 2015-2016 ikasturtean irakastorduz kanpora eskainiko diren klase-emankizunetarako behin betiko indarrez onestea, lurralde historiko hauetan:

Araba:

Aixkiria AEK euskaltegia
Amurrioko AEK euskaltegia
Arana AEK euskaltegia
Aratz-Pinto euskaltegia
Errioxa Kultur Elkartea
Gasteiz-Adur euskaltegia
Hegoalde euskaltegia
Laudioko AEK euskaltegia
Laudioko udal euskaltegia
Lautadako AEK euskaltegia
Udaberria euskaltegia
Zadorra AEK euskaltegia
Zaldiaran euskaltegia

Bizkaia:

Aita Villasante udal euskaltegia
Arrigorriagako udal euskaltegia
Aurten Bai Fundazioa
Barakaldoko euskara udal erakundea

Basauriko udal euskaltegia
Bilbo Zaharra euskaltegia
Bizkaiko AEK
Durangoko udal euskaltegia
Erandioko udal euskaltegia
Ermuko udal euskaltegia
Euskal Irakaslegoa-Deustuko Unibertsitatea
Galdakaoko udal euskaltegia
Getxoko udal euskaltegia
Gotzon Garitaonaindia euskaltegia
J.A. Agirre euskaltegia
Juan Mateo Zabala euskaltegia
Labayru Ikastegia
Mikelats euskaltegia (Orixe E. SAL.)
Mungiako udal euskaltegia
Muskizko udal euskaltegia
Portugaleteko udal euskaltegia
Sestaoko udal euskaltegia
Trapagarango udal euskaltegia
Txinta kooperatiba
Txorierriko udal euskaltegia
Ulibarri euskaltegia
Urtzintza Eskola

Gipuzkoa:

Andoaingo AEK euskaltegia
Arrasateko udal euskaltegia
Azpeitiko Euskara Patronatua-Udal euskaltegia
Bedita Larrakoetxea udal euskaltegia
Bergarako udal euskaltegia
Bidasoako AEK
Debagoieneko AEK
Donostiako AEK
EBETE Hizkuntza-Zerbitzuak Ikasketa Elkartea Koop. txikia
Eibarraldeko AEK euskaltegia
Eibarko Udala-Udal euskaltegia
Emun, Koop. E.
Errenteriako Udala-Udal euskaltegia
Euskal Herriko Ikastolak Sociedad Cooperativa Europea
Gernika XXI, S.L.
Gipuzkoako Bertsozale Elkartea GBE
Goierriko AEK
Hernaniko AEK
Herri Jakintza euskaltegia
Hitzez euskaltegia E.M.
Ilaz Konstituzioko Ikastetxea S. Koop.
Kostako AEK
Lasarte-Oriako Muntteri AEK euskaltegia
Legazpi 6 euskaltegia, S.L.

Leintz udal euskaltegia mankomunitatea
Maizpide SCL
Mancomunidad Urretxu-Zumarragako udal euskaltegia
Oarsoaldeko AEK
Soziolinguistika Klusterra Elkartea
Ttakun Kultur Elkartea
Urolako AEK
Urrats euskaltegia
Urtxintxa Eskola Gipuzkoa

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

EGA edo HE2tik gorako ikastaroetarako berariazko eta jatorrizko materiala prestatu eta banatu behar denean, kasuan kasuko euskaltegi edo ikasketa-elkarteak aldez aurretik adieraziko dio Hezkuntza Sailari, eta hartarako onespena jaso beharko du. Bestelako materialik ez du Hezkuntza Sailak ordainduko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

EGA edo HE2tik gorako ikastaroen emankizunerako euskaltegi edo ikasketa-elkarteak bere egoitzatik hamar kilometro baino gehiagora joan behar duenean, Hezkuntza Sailak gastu horiek ordaindu egingo ditu, kilometroko ohiko prezio standarrak aplikatuz.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honen aurka interesatuak gora jotzeko errekurtsoa jar dezake Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Erabaki honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita ekarriko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 28a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.